

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IRUÑA OKAKO UDALA

#### **Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga kobratzea**

Ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2020ko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

#### **Landa, hiri eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga**

Ordainagiriak 2020ko urriaren 19tik abenduaren 21era bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko modua:

1. Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

– Iruña Okako Udalak zuzenean zordunduko du zergaren zenbatekoa zergadunak adierazitako kontu korrontean, 2020ko abenduaren 10an.

– Banku kontuen altak eta aldaketak irailaren 30a baino lehen izapidetu behar dira; bestela, hurrengo ekitaldian izango dira eraginkorrak.

2. Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak (ordainagiriarekin):

– Ordainagiriak bidaliko zaizkie zergadunei, eta udalaren bulegoetan ordaindu ahal izango dituzte, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian: 09:30etik 13:30era.

– Kutxabanken eta Laboral Kutxaren bulegoetan.

– Internetez, banku transferentzia bidez.

– Hurrengo zerga jakinarazpenetarako helbide aldaketak 2020ko irailaren 30a baino lehen izapidetu behar dira; bestela, hurrengo ekitaldian izango dira eraginkorrak.

2020ko abenduaren 22tik aurrera, ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezten.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Langraiz Oka, 2020ko irailaren 9a

*Alkate-lehendakaria*

**MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ**